

# ZALOA IPIÑA

2016.07.05 - 2016.09.04

## HURRENGO ERAKUSKETA

Ana Riaño 2016ko irailaren 6tik azaroaren 1era

### rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao  
Tel. +34 94 406 85 32  
www.salarekalde.bizkaia.eus

### Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30  
Igande eta jai egunetan: 10 - 14  
Astelehenetan itxita

### Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h  
Domingos y festivos: 10 - 14 h  
Lunes cerrado

### Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h  
Sundays and holidays: 10 - 14 h  
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



# ZALOA IPIÑA

## Barrenbila

2015eko uztailaren 5etik irailaren 4ra

• Rekalde Aretoak **Zaloa Ipiñaren** (Bilbo, 1986) **Barrenbila** erakusketa aurkezten du Kabinete Abstraktuan, Bizkaiko Foru Aldundiaren sor-kuntza artistikorako beka eskuratu dituzten artistak azaltzeko xedez abiarazitako barriek 2016 programaren barruan.

• Ipiñak espazioa eta argia gai bihurtu ditu bere obran, esparru horien irudikapen bisuala lantzen baitu, metakrilatoz eta serigrafiatutako azetatot egindako eskulturen bidez. Era horretan, gardentasunak berak desagerrarazten du piezaren kanpo eta barneko eremuen arteko espazioa.

• Ipiñak eraiki dituen *Ikus-esparru zabalduak* estudioan eta etxebizitzan egin duen maketaren emaitza dira. Instalazioan, etxea osatzen duen gela bakoitza bideoaren argiak zeharkatzen duen gorputz garden bihurtzen da, pisua galduta. Hor dago airean flotatzen, munduarekin lotura zuzena izango ez balu legez.

• Errealitatearekin lotzen duen gauza bakarra maketa zehatza izateagatik dituen forma eta neurri kalkulatuak dira. Argiak leku guztietatik zeharkatzen du, bideoak berak argi bat irudikatzen duen heinean.

• Ipiñak argiaren bidez eraldatzen du pareten artean itxitako espazioa, espazio mugagabe bihurtzeko.

## ERAKUSKETA

Geure kabuz, gela itxietan eta bakardadean garatzen diren lanak jorratzen ditugunok aski ongi nabaritzen dugu espazioak guregan duen eragina. Bere ñabardurek guztiz tindatzen dute gure lanaren emaitza; hala, arratsaldeko eguzkiak nire leihotik sartzean sortzen didan samurtasun sentsazioak blaituko du testu hau. Ziur nago Virginia Woolf bere gelan isten zenean, nabaritzen zituela neguaren hotzaren arrastoak kristaletik kanpoko paisaian, hala nola lore berrien distira udaberrian, eta horiek utzi dituztela ere euren markak *Mrs Dalloway* eta *To the Lighthouse* gisako liburuetan.

Jakina da beraz argia eta honen izpiek sortzen dituzten inpresioak lanabes izan duen artista batek bereziki sentitu behar duela ingurune horren eragina, izan alaitasuna, izan tristura, izan monotonía ala ezegonkortasuna. Eta eragin horri erantzunez eraiki ditu Zaloa Ipiñak bere *Ikus-esparru zabalduak*; espazioa eta argia gai bihurtu ditu, alegia, esparru horien irudikapen bisuala landuz.


Birritan intimoa den espazioan sarrarazten gaitu Ipiñak: bere etxebizitza den lekuan, aldi berean bere estudioa izan dena urtetan. Artistaren lan esperimental eta bizitza pribatua elkartzen dituen espazioak halabeharrez eragin behar izan dio, bertan pasatako ordu luzeen ondorioz. Patuak nahi izan du gainera erakusketa hau Louise Bourgeoisen *Izatearen egiturak*: *Gelak* erakusketarekin bat etortzea. Bi artistek sumatzen dute biltzen gaituen, gure izatearen atal bat den espazio horren indarra, nahiz eta gero bakoitzak ikuspuntu desberdinetik landu. Hala, Bourgeoisen *Gelak* sinbolikoak, itxiak eta zentripetoak diren bitartean, barne-bizitzaren isla, Ipiñarenak errealtatearen maketak dira, baina gardenak, kanpo eta barnealdearen arteko nahaste.

Izan ere, artistak ez du espazioaren erretratu bat bilatzen. Ez digu espazioaren dokumentazio grafikorik eskaintzen, ez doa biluzte publikoaren bila: bere instalazioan, etxea osatzen duten gela bakoitza bideoaren argiak zeharkatzen duen gorputz gardenean bihurtzen da, bere pisua galduz; hor dago airean flotatzen, munduarekin lotura zuzena izango ez balu legez. Errealtatearekin lotzen duen bakarra maketa zehatza izateagatik dituen forma eta neurri kalkulatuak dira. Argiak leku guztietatik trebesatzen du, bideoa bera argi baten irudikatzea den heinean, argia erregistratzen duen argia bihurtuta nolabait. Honela, argi horrek ezartzen du kanpo eta barneko eremuen arteko lotura.

Hain zuzen, gardentasunak berak desagerrarazten du sortzen duen espazio bera, hau ireki eta hedatuz. Lanaren izenburuak bidera-



Ventanas a un imaginario II. Teknika mistoa. 19,5 x 29 x 2,5 cm



Cuando habitan la luz y las sombras. 2015. Bideoa. 2' 43".

tzen gaitu ideia horretara orobat, zabaltzearen kontzeptura. Preseski, babestu eta besarkatzen gaituen espazioa izan daitekeelako halaber atxilotzen gaituena. Mugak jartzen dizkigu, eta hauek fisikoaz gain, mentalak ere izatera iris daitezke. Hortik behar bada bideoarekin, argiarekin, pareta ikusezina zeharkatzeko beharra, esparrua gainditzearena

espazioa, nolabait, mugagabe bihurtzeko.

Edozein kasutan, Ipiñak hasieratik ezarri nahi izan du barne eta kanpoko esparruen arteko lotura, banaketa saihestezina zaiolako: ez al da egunsentiko azken argiekin nire gela txikitzen eta goibeltzen? Ez al da kanpoko paisaia nire etxearen hondo dekoratiboan bilakatzen? Baok lekua berezia hartzen dute lan honetan Ipiñarentzat, aspalditik dakarren argiaren azterketarako nahitaezkoak izateaz gain, kanpokoaren erlantzaren bidea direlako ere: bertatik sartzen dira sukalderraino zerua edota etxe pareko mendi oihantsua, eta honela, abiapuntu bihurtzen dira euskarri gardenen gainean ostera eraikitzeko, intimitate bezain arina, hauskorra eta liluragarriak diren objektuak.

Haizea Barcenilla

## ARTISTA

<http://zaloaipina.wix.com/zaloaipina>

Arte Ederretan lizentziaduna da UPV/EHUtik (2009) eta Obra grafiko garaikideko masterra egin du Coruñaiko CIEC Fundazioan. Gaur egun, BilbaoArte Fundazioaren lankidetzaren beka du. Egoitza artistiko bat izan du Bartzelonako Centre d'art contemporani Piramidón-en (2015), eta beste bat BilbaoArten (2012). Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ikusmen-artearen beka eskuratu zuen 2013-2014an.

Bakarka egin dituen azken erakusketen artean, hauek dira nabarmenenak: *ITZALezinak*, Windsor Kulturgintza galeria (Bilbo 2014), *Argien ibilbideei jarraituz*, Torre Ariz (Basauri 2013), eta *Abierto por vacaciones*, Galería Michel Mejuto (Bilbo 2012). Horrez gain, aurki banakako beste erakusketa batzuk egingo ditu, Bartzelonako Hotel H10 Art Gallery-n (2016) eta Eibarreko Portalean, Gipuzkoa (2017).

Talde-erakusketa askotan hartu du parte, bestak beste, hauetan: *24 premi Telax*, Antoni Pinyol galeria, Reus; *CALL 2015*, A del Arte galeria, Zaragoza; *25 al quadrat*, Centre d'art contemporani Piramidón, Bartzelona; *Ertibil 2014*, Rekalde Aretoa, Bilbo; *Punto y raya festival* 2009, 2011 eta 2014, Centre Arts Santa Monica, Bartzelona; Museo Reina Sofía, Madril; eta Reykjavik Center For Visual Music, Islandia.